

BATASUNERUNTZ

Azkeneko BRANKA-tik hona, aurrerapen batzuk egin ditu Batasunaren ideiak. On izango da hitz gutxitan gogoraztea.

EUSKO GAZTEDI

Oso harrera ona izan du Euskal Herrian barrena « Eusko Gaztedi » ak atera berria duen Agiria. Segidan osorik ezagutarazten dugun Agiri horretan (« Batasunaren oiñarriak »), Eusko Gaztediak « abertzaleen batasuna » eskatu du; baita, E.T.A.-rekin batera, Apirrilaren 26-rako abertzale jendea Gernikara deitu.

Hona hemen hitzez hitz EGI-ren dei hori :

« Joera desberdiñetako abertzaleon arteko batasunaren garaia eldu dela gauza agiria zaigu; baita, Abertzale Elkarte ori gabe, Euskal Erriaren etsaiak ari dirala irabazten, eta ez gu.

» Baiña ezin gaitezke beti ere gauza berberak esaten egon, eta egiñetara gabe. Ori delata, Eusko Gaztedi-kook alkarrentzako Araudi minimo bat berealatik ezagutaraztea erabaki dugu; eta beronen bidez, Abertzale Elkarte orretara eramango duen alkarrizketara danak deitzea. Puntu auk agirian jarriaz, abertzale erakunde guziak ditugu gogoan; baiña gure E.A.J. oso bereziki.

» Gure galdera au da : zegatik ez oraindanik asiko alkarrizketa bat E.A.J.-aren eta gaiñerako euskal politika-indarren artean? Gure ustez ondoko auk izan litezke edozein abertzalek onartuko lituzkean oiñarri-puntuak :

1. Euskal Erriaren batasuna eta askatasuna, Euzkadi-ko erresuma edo laterriaren bidez.
2. Erriaren kultura-batasuna, euskera nazio-izkuntza egiñez.
3. Euzkadi'ren politikazko demokratizatzea, orretarako politika eta sindikato-askatasunak errespetatuz.
4. Euzkadi'ren ekonomi-demokratizatzea, oiñarriko produzio-bideak gizartetuz.

» Gure galdera artez doa : zergaitik ez sortuko Abertzale Elkarte bat, puntu oriek ontzat ematen dituzten indarrekin? Bai Eusko Gaztedi-ko geranoi, bai Euskal Erriari, esan dakigula nai dugu zergatik edo zertan dan gure eskaera onartu-eziña.

» Uste dugu, ain zuzen, Abertzale Elkarte ori ez izatea (eta bai, ordea, espainarrekin dauden itun zaharrak, aspaldidanik igartuak) aberri-ondabide bat dela, eta erriak ez duela luzaz jasango. Euzko Jaurlaritza ez da erriak eskatzen duen Abertzale Elkarte ori; zeren-eta P.S.O.E., Izquierda Republicana, eta beste, *español*-taldeak barne bait dira, eta, orrez gaiñera, uste bait dute « iru probintzietan » legetasuna eta bidezketasuna dagozkiela; eta, orrekin batera, ez E.T.A., ez Enbata, eta ez beste abertzale erakunde garrantzitsu batzuk ez bait dira barne.

» Egoera ontaz jabeturik, eta bai erriaren naia, bai E.A.J.-aren jarraitzaillerik geienen naia biltzen dugula jakini, berriro galdetzen dugu : zergaitik ez, lau strategi-elburu oriek oiñarri, Abertzale Elkarte bat egin? Bietatik bat nai dugu : edo Elkarte, edo zergatik ez den egin bear argi eta garbi guri eta erriari azaltzea; arazoa larria da-ta.

» Ez gera gu, bestalde, elburu oietaruntz nola eta zein bidetatik joan bear dan esango dutenak. Bideen arazoa, ain zuzen ere, Abertzale Elkarteari dagokio.

» E.A.J.-ko burukideok, abertzale erakunde guzien buruzagiok : bai E.G.I., bai abertzalerik geienok, zuen erantzunaren zai gaituzute. »

Dei honen ondorioak, gero agertuko denez, sakonak izan dira; eta ez dira hasi besterik egin, gure ustez.

ENBATA

Iparraldeko mogimendua Abertzaleon Batasunaren alde mintzatu izan da lehenagotik ere. Alde honetatik, euskal erakundeetan batasun-zaleena da beharbada : bai Euskal Herriaren bi alderdien batasunari dagokionez, bai euskaldun indarren aldetikakoa ere.

Hona hemen 1963-an « Itsasuko Ageria » delakoan ziona : « Herri bat, nazione bat, demokrazia bat girelaketz, batasunaren obratzeko eskubidea eta gure buruaren jabetasun osoa nahi ditugu ». Maiatzaren 20-ko zenbakian (165 gna.) artikulu labur bat eman du batasunaren alde; eta erdiko orrialdeetan, osoki, EGI-ren deia frantsesez.

Euzkadi Ta Askatasuna (E.T.A.)

Bolada batez ezkerkeriaren autsikiak jasan ondoren, eta Abertzaleen Batasunaren beharretik pitin bat ahaztua, berriz ekin bide dio E.T.A.-k sorrerako bere nahi nagusiarri. Eta « Batasuna » izeneko aldizkari bat ateratzen hasi da (guk dakigunez, bost zenbaki atera dituzte orain arte).

« Batasuna-2 » delakoan hau irakur diteke : « Baina ba dakigu hasieratik zer egin behar dugun : Batu eta organizatu. Ezin genezake honela jarrai, bakoitzak guda bere aldetik eginaz. Denok ados gaude batasunarekin, baina egiteko orduan dena luzamena eta oztopoa da. Herriak beharrezkoa duen batasuna nahi du eta honen bidez tajuzko borroka bat ».

« Batasuna-4 » ean hau irakurri dugu : « Oligarkiaren eta fashismoaren aurkako herri iraultzak « apurketa » ekintza horren ondoan, aberritar askatasunaren kontenidu « egile » edo konstruktore berezia

hartzen du Euskadin. Prozesu honeri Euskal Herri Iraultza deitzen zaio; eta Eusko Aberritar Frontea da proletaritzaren zuzendaritzapean herriaren batasun hau lortzen duen erakundea ».

Eta « Batasuna-5 » ean hitz beroak ditu ETA-k EGI-k ateratako Agiriaren alde : « EGI-k ere « Batasuna » deitzen den horri bat zabaldu du, Gernikako « Batasun Eguna » ta frente nazional baten beharra on-hartuaz. Gure herrian aberritar askatasun borrokaren jokaera hartzen duen mailaen borrokak, oligarkiaren eta estatu faszistaren aurka azaltzen diren guztien batasuna eskatzen du praktikan, orain eta hemen. Bat gatoz EGI-ren deiarekin eta beste euskal erakunde guztietara zabaltzen dugu ».

Euzko Alderdi Jeltzalea - P.N.V.

« Alderdi » ak ere bere geldikeritik atera nahi bide du. Eta joan den Maiatzan « Euskotar Alkartasuna » izeneko Agiri bat atera du. Nahiz dei horretan Alderdiak Abertzale Elkartearen alde ez agertu, gure herrian sortu den batasunaren giroaren neurri bat dat; eta, onhartu gabe, hitzez hitz kopiatzen dugu :

« Fasista indarkeria'ren aurka, 1.936' garrengo Urrillian, EUZKADIKO ERRI-INDAR egiñak ziran Alderdiak, alkarte orretan gogo-oneko erabakiz EUZKADIKO JAURLARITZA autestea on artu eben, aurrez aiañ gairidzka erakutsia zan euzkotar naiari jarraituaz.

» Alderdien on-artze orren ondorenak ziran : ziñegotzi gei-geyenak, ezan lezake gustien auteskiz Agirre'tar Joseba Andoni jauna LENDAKARI egitea, EUZKADIKO JAURLARITZAREN ORDEZKARIAK izendatu, JAURLARITZAN aurkezpena egin eta bere JAURLARI-AGERPENA irakurri GERNIKAKO Aritz'pean LENDAKARIAN zinegite gogoan-garran ondoren.

» EUZKOTAR ALKARTASUN au, une garratz ayetan egiña ta orainarte ausi gabeak oñarriztat ditu :

a) — GERNIKAKO JAURLARIAGERPENA Jaurlaritzak esanaz : « *Euzko-gixonen eskubideak nai berezikuak naiz gixartekuak begiratu ta zainduko dauz* » eta « *Euzko jaurlaritzak, euzko-erriaren ezaugarriak zainduko ditu : bere izakeraren mamia bait-dira. Beraz ezaugarri oien indartze eta zabaltzeak babesa arkituko dute beronengan* ».

g) — BAIONAKO AGERPENA, Euzkotar Erriketa ta Sindikal Taldeak 1.945'garrengo Epaillan 31'an izenpetua, etenbarik urtero egun orretan baieztua. AGERPEN orretan 1.936'garren urteko ALKARTASUNA on-artuaz, barrizturik Euzkadiko Jaurlaritzan'ganako uste oso ta laguntasuna, Talde oyek oyualdi orretan ezagutu ta on-artzen dabe EUZKADIN eskubia da bere erabakiz zer bizi-bide nai duan erriketa arazoan, azalduaz, izenpetu ebenak, euren naia burrukan jarraitzeko eta « *on eman ta aldeztu, demokrazia bidez baretzean, EUZKADIK dituan eskubideak batere oker barik azaltzeko* ».

k) — PARIS'KO EUZKOTARREN LUDI-BATZARRAN ERABAKIAK, 1.956'garrengo Iraillean, demokrata Alderdi ta Sindikal Talde guztiak

inguratuaz. Erabaki onetan Batzarrak gaiñ-gaiñeko baietza ta laguntasuna ematen dizkio Euzkadiko Jaurlaritzari, onartuaz BAIONAKO AGERPENA, dalako : « *izenpentutako ALKARTASUNAN eskier onena ta alkarren'ganako ongi nai ta lagunbide lortu nai dogun azkatasun ta demokraziak izan daitezcan oñarri zakonak* ».

» Bide orreri jarraituaz EUZKO ALDERDI JELTZALEAK bere 1.966'garren urteko Agerpenean ezagutzen eban EUZKADIKO JAURLARITZA Euzko Errian ordezkari bakar lez, gaur bertan be barriz ezagutuaz DEMOKRAZIAZKO EUZKO ERRI-INDAR'EN buru lez, ainbat millaka aberkideen odolez ziñespetua, izan genituan nekaldietan alkarrekin igaroaz espetxe ta beste neka-bide ziran zigorpeetan, atzerrian eta Aberrian.

» ALDERDI JELTZALEAN ustea da EUZKADIKO JAURLARITZA dala Euzkadi azkatzeko biderik egokiena ta bere jauntasuna daramala ondo erakutsia une garratzetan, gaur ezaguturik, garbi edo ixillean, ludi guzian bere agintaritza.

» EUZKO ALDERDI JELTZALEAN iritziz edozelako EUZKO ALKARTASUN, gaur iñoiz baño bearrekoago urreratzen datozen egiteak, ustez, garrantzizkoak izango diralako Aberriarentzat, EUZKADIKO JAURLARITZAN barruan egin bear dala.

» Azkenengo urtietan Errian indar barriak sortu dirala ezagutuaz, EUZKO ALDERDI JELTZALEAK, demokrata dan lez, sarbide zabalez ezkatzen dogu EUZKADIKO JAURLARITZAN sar ditezela, gaurko ta lengo indarrez egun-egunekoa izan dadin, eutsiaz ta indartuaz lenengotik izan eban EUZKO ERRI-INDAR ALKARTASUNA. Gogo onezko sarrera au ez da iñolaz be norberetasuna galtzea ez da ere nastekatuaz iñoren menperatzea ez bada eze alkartasun indarrez lortu ta eustea EUZKADI TA EUZKOTARREN AZKATASUNARI.

GORA EUZKADI AZKATUTA.

Euzkadin-1.970-Orrila

EUZKADI BURU BATZARRA. »

Alderdiaren dei honek erantzun sakon bat merezi du ; eta urrengo zenbakitan egitea agintzen dugu.

Beste bi talde batasunaren alde.

« Euskaldunak, denok bat » izeneko aldizkaria ikusi dugu, Maiazaren 1-ean agertua. Abertzaleen Elkarte guztiz beharrezkoa dela aditzera eman ondoren, Elkarte horren oinharri izan ditezkean puntu batzuk proposatzen ditu :

- « Los principios que ha de seguir el Frente Nacional Vasco no los puede crear nadie, sino son las propias organizaciones en él integradas quienes tienen que acordarlo... »
- Cantactos destinados a la colaboración y desaparición de diferencias y roces entre las mismas...

- Comité Ejecutivo con poderes absolutos dentro del campo de acción adjudicado al Frente Nacional Vasco...
- Verdadero objetivo nacional, eliminando del mismo toda tendencia de clase, grupo o doctrina partidista...
- Crear, difundir y proclamar una verdadera doctrina nacional vasca, clara, concerta y firme, destinada a formar al Pueblo en su lucha de liberación nacional, resaltando todos sus valores vascos existentes...
- Comprometerse todas las organizaciones del Frente Nacional Vasco al mutuo respeto...
- Limitarse todas las organizaciones del Frente Nacional Vasco a no hacer más propaganda nacional que la controlada por éste, o bajo la línea trazadaa por el mismo, reservando las mismas organizaciones toda propaganda doctrinal de grupo o partido a escala de sus militantes o afiliados...
- Coordinación en la ayuda a presos y refugiados...
- Creación de una policía conjunta al mando del Comité Ejecutivo del F.N.V...

**

Caracastik, azkenik, « Sabindiarra » izeneko 2-gn.zenbakia ikusi dugu. Eta E.G.I.-ren Agiria guziz onhartuz (fotokopia bana ere sartu dute beren aldizkarian), Elkartearen alde agertzen da. « Sabindiarra » Arana-Goiriren bidetik doa politikari dagokionez, eta Elkartearen alde hau dio : « El momento histórico que vivimos urge que se forme ya el Gobierno Provisional de la República Vasca ».

**

Agiri denez, beraz, Abertzale Elkartearen beharra gero eta garbiago agertzen ari da abertzale diren erakundeetan.

Abertzale ez direnetan, berriz, gure garaitzapenaren bildurra haunditu ala, bi joera agertzen dituzte. Españazale amorratuenak, Hegoaldean, aurrez aurre oldartzen zaizkigu, guretzako betiko beren leloak berrituz : « racistas », « chauvinistas », « burgueses », reaccionarios », « compañeros de viaje del P.C. », « románticos », « terroristas », « ateos », « meapilas », eta abar, etsaiaren hiztegiaren arabera. Eta, bestetik (eta hemen ibili behar dugu argi !) gu zatitzeko azpikeriak hasi dira, « táctica » gisa presentatuz beroiek, eta abertzaleok ontzat eman ezin ditzakegun sasi-elkartek proposatuz.

Gure herria ez da nahasiko. Ez dugu nahi ez « eskubitar » batasun bat españolekin edo frantsesekin. Ez « ezkertar » batasun bat beroiekin : GEURE batasuna nahi dugu, ABERTZALE GUZION BATASUNA. Iruñen josi ditugu geure begiak, ez Parisen edo Madrillen.

Euskal Abertzale Elkarteari bai !

Bestelako sasi-elkartasun guziei ez !